

**LOYOLAKO-KO AITA SAN INAZIO**  
**KANTAUITARREN BITARTEKOA**

**KANTAERA.**

(IRU BERSO-MODU TA BI KANTALDITAN)

**I.**

¡Kantauri-tarren gordetza dezun.  
 Zeruko Aingeru galaya!  
 Eman idazu zeruko izkuntza,  
 Leundurik mingaň alaya:  
 Eldu da noizbait Inazio-ri  
 Kantatutzeko garaya.  
 Zatozkit ariň zeru urdiñerik,  
 Urraturikan izarrak,  
 Zure ega zillar-urrezkoetan  
 Artuko ditut indarrak;  
 Zurekin naitut jirabiratu  
 Mundu guziko baztarrak..

Onela erregu bero-beroan  
 Gora nengoan begira,  
 Baña bat-baten menpetu nintzan  
 Lo gozo baten eztira.  
 Ta aldatu nintzan, ez dakit nola,  
 Aingeru-biren erdira...  
 Zeru-zaldunak agertzen, dizkit  
 Erroma-ko Uri parean

Lur ichasoen lau alderdiyak:

Soñu gozoen artean

Isurtzen dizkit itz-aldi oek

Gure Inazio-ren gañean.

- » Jainko gure Jauna-ren gloriatzallea
- » Loyola-ko Inazio da parebagea;
- » Or Erroma-n gorputza, anima an Zeruban,
- » Bere izen da egiñak an ta emen munduban
- » Dirade otsandikoak.. ... Onari Jainkoak
- » Beti dizka ondasun neurritz gañezkoak.
- » Inaziok diyo beti »*Jaunari Gloria*
- » Aren Glori-andirako dauka Lagundia,
- » Zeña Jesus duela buru, ai da aurrena
- » Munduz-mundu zabaltzen *Jesus-en* izena.
- » ...Ordutik gerra dabill munduban gogorra,
- » Jaiki zalako kontra deabru galdukorra:
- » Infernu ta gaiztoak, zeru ta Elizari
- » Kontra ari dira irten nayezen noizbait garailari.
- » Kantauritar-erriya, ez izan bildurrik,
- » Loyola-ko, Inazio-ri menaz jarraiturik;
- » Au dezu zeruetan Bitarteko artuba,
- » Segiturik berari zen salbatuba. »

Itz-azken oyek esan orduko

Odei argizko leunetan

Irristaturik argitu giñan

Urola-inguru ederrotan.

Emen berriro zabaldurikan

Arrosazko espaiñ gorriyak

Eraso zidan esan-oyekin

Zoraturikan mendiyak.

## II.

- » Loyola-ren izena darabilte aizeak,
- » Darabilte gizonak, darabilte umeak;
- » Bedeinka tzen da izen au usai gozo artean
- » Ebro, Nilo ta Ganjes ta Amazona aldean.
- » Kantabriako mendi tontor altubetan,

- »Arkaitz artean eta Ibar-zelayetan  
 »Lorerik ederrena nola oi dan atara  
 »Aldatutzeko Ertege loraegietara,  
 »Ala beregandurik Inazio Zalduna  
 »Loyola-tik Jainkoak, egin du ezaguna.  
 »Andiya bada Inazio Iruña gordetzen,  
 »Guztien gañekoa da Jauna serbitzen ....  
 »Orri begira beti, Euskaldun prestubak,  
 »Zeron erri gordetzen ta izaten santubak.  
 »Inazio-ri jarrairik goitu diradenak  
 »Dituzute inguruan gizon argienak:  
 »Araba, Naparroa, Gipuz ta Bizkayak  
 »Argidotar semetan dirade emankoyak.  
 »Araba zabalean, Ayala ta Olabe,  
 »Galín, Bela, Gebara, ta eun geyago daude;  
 »Jabier Naparroan, Uriz ta Azpilcueta....  
 »¿Baña, milla izenentzat nundik degu beta?  
 »Bakarrik alde onetan Bizkaira begira,  
 »Ichasozko azañetan or agiri dira  
 »Machin, Mungi, Arbolancha, Bilbao-tar ona,  
 »Errekalde, Arteita, Mello Bertondona....  
 »Inazio-ri jarrairik santutasunean,  
 »Azaltzen dira Landa ta Uriola batean;  
 »Zumarraga ta Arauna, Isunza, Jauregi,  
 »Berrio-Ochoa eta Menda Gisategi.  
 »Gipuzcoa chikiyan gizon andienak,  
 »¿Ez dira diralako Loyola-en urrenak?...  
 »Elkano, Andia, Legazpi, Okendo, Larrea,  
 »Urbieta ta Idiakez, Churruka jendea,  
 »Beste millaka utzirik, lur ta ichasoetan  
 »Ospatsu izan dirade milla baztarretan.  
 »Santu izaten Japon-en San Martin, eta Ingre-n  
 »Lizardi, Asteasu-koa, Anchieta Brasill-en,  
 »Errezil-go Ezkizia, ta Oyarzungo Isasa,  
 »Araoz, Cardaberaz ta Aita Bereyarza...  
 »Baña, kontatutzea da errezago izarrak,  
 »Kanpoko bedar eta ichasoko ondarrak  
 »Gizadi argiya baño Kantauria-rena,

»Zeñen guzien artean da Inazio goyena,  
 »Nola odeyen gañera kopeta alchaturik,  
 »Loyola Elizak dauzkan echeak beturik,  
 »Edo euskaldun-erraldoi Joakin Alzokoak  
 »Nola gaintzen zituen jende Lapongoak.  
 »Jarraiyozte beti, Euskaldunak, orri;  
 »Bere antzera bizirik, zeruraño korri;  
 »Berari erregu bero ta aldare berriyak  
 »Berekiñ gozatzeko zeru-jauregiyak.»  
 Liliuraturik arkitzen nintzan  
 Ain gauza aundiak aditzen,  
 Baña, ara nola zeru-zaldunak  
 Asitzen diran egatzen,  
 Parra gozoan, esanaz «agur,»  
 Zeruronz zaizkit goratzen.  
 Euzki bi egiñik izar-artetik  
 Dijoaz, botaz lurrera:  
 Argi-ichaso bat; ta iduritu zait  
 Ni ote nijoan batera;  
 ¡Baña, naiz geldi mundu tristean,  
 Juan gabe zeru ederrera! . . .  
 Arren gizonak, egiñ alegiñ  
 Igo gaitezen zerura;  
 Ara igotzeko ta ez besterako  
 Jayo giñaden mundura;  
 Ill-arte gerra pekatubari:  
 Guazen Santúen lekura.

(Alabiz.)

A. JOSÉ IGNAZIO ARANA-KOAK.

